

1996ko otsailean euskararen garapen ildoek kezkatu-
turik euskararen gizarte
erakunde nagusietako ar-
duradunak bildu ziren eta
elkarlanean urrats berriak
emateko premia nabarmen-
du zuten. Talde Eragile bat
sortu zen ildo hauek mar-
txan jartzeko: Euskararen
Unibertsoaz gogoeta, Plan-
gintza Orokorra, eta eragin
sozialaren antolakuntza.
Dossier honetara plangin-
tzari buruzko proposame-
na ekarri dugu. Hiru txos-
tenak Jardunaldietan ezta-
baidatuko dira 1997ko
martxoaren 7 eta 8an Do-
nostian. Ekarpinak egiteko
azken data urtarrilaren 31
izango da eta matrikula
epea otsailaren 14an amai-
tuko da. Txostenen eta ar-
gibideen liburukia eskura-
tzeko, matrikula egiteko
zein gainerako informazio-
etarako telefonoa 943-
271713 da, faxa 943-290617
eta helbide elektronikoa
eub@eusnet.org

EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO IKUSPUNTU SOZIALEKO PLANGINTZA OROKOR BATEN PROPOSAMENA

Euskararen Unibertsoaren Talde Eragilea

PROPOSAMEN HONEN IDEIA NAGUSIAK

- 1. Euskara normalizatzeko ezinbestekoa da Plangintza Orokorra.** Plangintzak bi ikuspuntu ditu: instituzionala eta soziala. Ikuspuntu instituzio-
naleko Plangintza Orokorrak neurri instituzionalak planifikatu, antolatu,
burutu eta kontrolatu eta administrazioaren ustez gizarteko agenteek zein
egiteko daukaten adierazi behar ditu, gizartearen partaidetza eta inplika-
zioa lortuz; ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorrak gizarteko agen-
teen esku dauden neurriak planifikatu, antolatu, burutu eta kontrolatu
eta administrazioak hartu behar lituzkeen neurri instituzionalak propo-
satu behar ditu, instituzioen partaidetza eta inplikazioa lortuz. Prozesu
osoan zehar bi ikuspuntuen arteko kontzertazioa behar beharrezkoa da,
osagarritasun eta subsidiarotasunezko harremanak bideratuz, elkarren
arteko menpekotasunik gabe.
- 2. Hemen ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorra diseinatzea eta gau-
zatzea proposatzen da** bai eta gizarte ekimenaren ustez administrazioak
egin behar lukeen ahalegina adieraztea ere. Funtsean diseinurako eta gau-
zapenerako metodoa doa txosten honetan. Hemen proposatzen dugun
Plangintza Orokorra prozedura soziala da, ez da instituzionala, ez anti-
instituzionala ere.
- 3. Plangintza Orokorra gizarteko alor guztietan eta Euskal Herriko lurral-
de osoan gauzatzekoa da,** zonalde eta lurralde bakoitzeko ezaugarri so-

ziolinguistikoetara egokiturik. Ikuspuntu instituzionaleko Plangintza Orokorra elkarrekin adostu beharko dute Euskal Herriko eremu administratibo bakoitzeko instituzioek eta administrazio maila ezberdinek, dagozkien gizarteetako ikuspuntu sozialen partaidetza eta inplikazioa lortuz. Hemen aurkezten den ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorren dago-kionez, Euskal Herri osokoa prozesu berean diseinatzea proposatzen da, instituzioen partaidetza eta inplikazioa lortuz.

4. Plangintza Orokorren kontzeptuak hiru dimentsio ditu:

- a) Makroerabaki kolektiboa da: plangintzak gizarte osoa inplikatzeko du, beraz, gizarte osoak hartu behar du plangintza bideratzeko erabaki kolektiboa.
- b) Kontzertazio iraunkorrerako markoa da: batzuen eta besteen estrategiak eta planak etengabe adosteko gunea.
- c) Tresna metodologikoa da: eraginkortasuna lortzen laguntzen die normalizazio ahaleginei.

5. **Ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorra Euskararen Unibertsoak egin behar du;** elkargune edo mugimendu honen egiteko nagusia plangintzak izan behar du. Euskalgintzak izan behar du ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorren aintzindaria, motorea, eragile nagusia, eta plangintzaren dinamikan gainerako gizarte sail guztiak inplikatzeko lortu behar du, bai eta instituzioek ikuspegi instituzionaleko Plangintza Orokorra egitea ere. Plangintzaren dinamika osoa zuzentzea eta gauzatzea Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua¹ izango denaren egiteko zuzena izatea proposatzen da hemen.

6. Adierazi bezala, **Plangintza Orokorren dinamikan gizarte sektoreak eta administrazioa lankidetzan aritzea oso garrantzitsua da** Hala ere, hau osorik lortzen ez bada, edo oso partzialki baino lortzen ez bada, funtsezkoa da gauza daitezkeen Plangintza Orokorren bi ikuspuntuen (instituzionala eta soziala) atalak gauzatzea.

7. Gizarte osoa plangintzaren dinamikan inplikatzeko eta administrazioak ikuspuntu instituzionaleko plangintza egitera bultzatzeko bideak, euskalgintzaren **gogoetak gizarteratzen jakitea eta eragin soziala garatzea** dira.

8. Plangintzaren egitekoak funtsean bi fase nagusi ditu:

- 1) Diseinuaren fasea, bi bat urte iraun dezakeena; diseinua Plangintza Orokorren buruzko sektorearteko kongresu batean aurkeztu, eztabaiatu eta erabakiko litzateke orduan. Funtsezkoa da diseinuaren fasea dinamika zabala eta irekia izatea, gizarte sektore guztiek parte hartuz, horiek guztiak planaren gauzatzean (2. fasean) inplikatzeko badira.
- 2) Plangintza Orokorra gauzatzeko fasea, diseinatutakoa aplikatzeko. Bigarren fase honetan, hala ere, diseinu mailako berregokitzapenak ere egin beharko dira aldiro.

«Ikuspuntu instituzionaleko Plangintza Orokorra neurri instituzionalak planifikatu, antolatu, burutu eta kontrolatu eta administrazioaren ustez gizartearen agenteek zein egiteko daukaten adierazi behar ditu, gizartearen partaidetza eta inplikazioa lortuz»

**«Ikuspuntu sozialeko
Plangintza Orokorrak
gizarteko agenteen esku
dauden neurriak
planifikatu, antolatu,
burutu eta kontrolatu
eta administrazioak
hartu behar lituzkeen
neurri instituzionalak
proposatu behar ditu,
instituzioen
partaidetza eta
inplikazioa lortuz»**

1. KOKAPENA

Hizkuntza minorizatu baten normalkuntza oso gai konplexua da, desafio handiei aurre egiten asmatzea suposatzen du:

- Gizarte baten transformazio ekonomiko, sozial eta politikoak aldaketa soziolinguistikoarekin harremanetan jartzea.
- Gizartearen erantzuna botere publikoen interbentzioarekin artikulatzea.
- Prozesu kolektiboan pertsona fisiko eta juridikoen jardunak ordenatzea.
- Hizkuntz politikako jardunen koordinazio sektoriala eta territoriala lortzea.
- Muga juridikoak eta teknikoak gainditzea.
- Ingurune sozial eta politikoaren bilakaerari egokitzea.

Plan bat gabe normalkuntza prozesua bideratzea ezinezkoa da guztiz. Hizkuntzaren berreskurapenari eraginkortasunez ekingo bazaio, ezinbestekoa da, inprobisazioen baitan jokatu gabe, Plangintza Orokor bat aldeztu aurretik prestatzea. Plangintza Orokorra gizarteko alor guztietan eta Euskal Herriko lurralde osoan gauzatzekoa da, zonalde eta lurralde bakoitzeko ezaugarri soziolinguistikoetara egokiturik. Plangintza horrek bi izatera ditu: instituzionala eta soziala. Ikuspuntu instituzionaleko Plangintza Orokorrak neurri instituzionalak planifikatu, antolatu, burutu eta kontrolatu eta administrazioaren ustez gizarteko agenteek zein egiteko daukaten adierazi behar ditu, gizartearen partaidetza eta inplikazioa lortuz; ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorrak gizarteko agenteen esku dauden neurriak planifikatu, antolatu, burutu eta kontrolatu eta administrazioak hartu behar lituzkeen neurri instituzionalak proposatu behar ditu, instituzioen partaidetza eta inplikazioa lortuz.

Gizarte ekimenak bere Plangintza Orokorra egin behar du, administrazioak berea; eta osagarritasun eta subsidiarotasunezko harremanak bideratuz eta menpekotasunik gabe biak elkarren artean kontzertatu beharrekoak dira. Hemen proposatzen dugun Plangintza Orokorra prozedura soziala da, ez da instituzionala, ez anti-instituzionala ere. Gizarte ekimenaren ustez zein neurri normalizatzailerik beharrezko diren proposatzera iristeko metodo proposamena doa txosten honetan; gizarteko agenteek abian jarri beharko lituzketen neurriak eta agente sozial hauen ustez administrazioak egin behar lituzkeen ahaleginak erabakitzea iristeko bidea proposatzen da hemen.

1.1. PLANGINTZA OROKORRA: MAKROERABAKI KOLEKTIBO BAT

Plangintzak gizarte mailako makroerabaki kolektibo bat bideratzea suposatzen du, normalkuntza prozesuak suposatzen duen transformazioa euskal herritarren gehiengoak asumitu eta protagonizatu behar baitu. Inplikazio hori lortzen ez bada ez da normalizazioa lortuko; inplikazio hori lortzen bada de facto garrantzi handiko makroerabaki kolektibo bat hartzen ari izango da gure gizartea.

Pertsonen hizkuntz portaeran aldaketa mailakatua, modu naturalean ger-

tatzekoa eta borondatezkoa izan behar du, nagusiki, gizartea hezurramitzen duten organizazioen hizkuntz funtzionamenduaren aldaketa mailakatuaren ondorio izanik ere, haiek baitira (era guztietako entitate publiko eta pribatuak, lanekoak edo aisialdikoak) bitartekaritza egiten dutenak helburu kolektiboen eta gizabanakoen bizitzaren maila guztien artean.

Plangintzak gizarteko sektoreen partaidetza eskatzen du. Herritarren kontentzimendurako eta inplikaziorako garrantzi berebizikoa dute Euskararen Unibertsoaren pentsamendua gizarteratzeko ahalmenak eta eragin sozialerako gaitasunak.

1.2. PLANGINTZA OROKORRA: KONTZERTAZIO IRAUNKORRERAKO MARKOBAT

Plangintza Orokorra hizkuntz normalkuntzaren aldeko estrategiak kontzertatzeko tresna bat da, hitzarmentze orokorrerako tresna, eztabaidarako partaidetzazko markoa. Bertan, denen artean onetsitako helburuak finkatuko dira eta eurok lortzeko aurrerabideak zehaztu eta adostuko dira. Prozesu kolektibo honetan pertsona fisiko eta juridiko bakoitzaren partetik espero dena agerian jartzeko markoa da.

Ekile sozial nabarmenenak elkarkidetzeko sistema da Plangintza: euskararen dinamikan dabiltzan guztien eta beren jardunen koordinaziorako marko komun da, botere publiko eta aktore sozialen arteko kontzertazioa bilatzeko gunea, talde politiko eta administrazioen artean kontzertazioa bilatzeko gunea. Plangintzak adostasunak eratzen eta gatazkak gaiztatzeko etengabe lagundu behar du.

Ikuspuntu instituzionaleko Plangintza Orokorra elkarrekin adostu beharko dute Euskal Herriko eremu administratibo bakoitzeko instituzioek eta administrazio maila ezberdinek, dagozkien gizarteetako ikuspuntu sozialen partaidetza eta inplikazioa lortuz. Hemen aurkezten den ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorrari dagokionez, Euskal Herri osokoa prozesu berean diseinatzea proposatzen da. Bi ikuspuntuak kontzertatzea eta plangintzaren dinamika osoan gizarte sektoreak eta administrazioa lankidetzan aritzea oso garrantzitsua da. Hala ere, hau osorik lortzen ez bada, edo oso partzialki baino lortzen ez bada, funtsezkoa da funtsezkoa da gauza daitezkeen Plangintza Orokorraren bi ikuspuntuen (instituzionala eta soziala) atalak gauzatzea.

1.3. PLANGINTZA OROKORRA: TRESNA METODOLOGIKO BAT

Plangintza funtsean enfoke globala eta sistematikoa izaten laguntzen duen tresna metodologikoa da. Prozesua gradualki planteatzen du, gizartearen bilakaeraren dinamika bera aprobetxatuz ahal den gehien. Plangintza helburu eta neurrien inbentarioa da, prozedura sozial eta instituzionalen segimenerako tresna. Unitate soziolinguistiko bakoitzaren integrazioa aurrakusten du sistema soziolinguistiko globalean.

**«Hizkuntzaren
berreskurapenari
eraginkortasunez
ekingo bazaio,
ezinbestekoa da,
inprobisazioen baitan
jokatu gabe, Plangintza
Orokor bat alde
aurretik prestatzea»**


«Gizarte ekimenak bere Plangintza Orokorra egin behar du, administrazioak berea; eta osagarritasun eta subsidiariorotasunezko harremanak bideratuz eta menpekotasunik gabe biak elkarren artean kontzertatu beharrekoak dira»

Plangintza Orokorra planifikazio estrategikoaren sistema bat da, helburuak, jarraibideak, neurriak, eta emaitzen aurrikuspena finkatu eta eguneratzea eta ingurune aldakorrari doitzea ahalbidetzen duena; hizkuntz normalkuntzaren aldeko eta kontrako joerak («aukerak» eta «mehatxuak», planifikazio estrategikoaren hizkeran) identifikatu eta batzuk aprobetxatzeko eta besteei aurre egin ahal izateko bideak jartzen laguntzen duena.

Txosten honetan egiten den proposamen metodologikoa Katalanaren Plangintza Orokorra egiteko erabili denaren egokipena da. Azken urteotan Katalunian egin da lehen aldiz hizkuntza gutxitu bat normaltzeko Plangintza Orokor bat eta 1995eko martxoan Generalitateak onartu zuenetik abian dago. Orain arte baziren plangintza sektorial ugari (Quebec-en, Israelen, Finlandian, Flandrian,...), baina Plangintza Orokorrik inon ez; katalanek Plangintza Orokor bat egin daitekeela erakutsi dute. Katalanaren plangintzarako erabili dituzten metodologiak ordea, ez dira guztiz berriak: enpresa mundutik eta dinamizazio sozio-kulturalaren esparruetatik hartutako teknika eta metodoak dira, batez ere planifikazio estrategikoaren sistema erabiliz; hizkuntz plangintzara egokitu dituzte modurik eraginkorrean baliatzeko, hain zuzen ere guk egin nahi izan duguna haien ikaspideak geure errealitatera egokituz.

2. PROGRAMAKUNTZAREN MAILAK ETA ZIKLOAK

- a) Plan Orokorra: bost urteko zenbait plangintzaldirako.
- b) Programa markoa bost urteko plangintzaldi bakoitzerako.
- c) Urteko programa (sektoreartekoa, lurraldekoa, hiru administrazioen sailartekoa).



3. HELBURUAK

3.1. PLANAREN HELBURU OROKORRA

Euskararen normalkuntza edo berreskurapen osoa lortzea Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean.


Helburu orokor hau hiru atal osagarritan egituratzen da:

1.Euskal Herriko herritarren euskalduntasuna lortzea. Hau da, batetik, belaunaldi berri guztien euskalduntasun praktikoa eta euskal kultura erabat atxikitzea hutsik egin gabe lortzea eta, bestetik, helduen artean euskararen gaitasuna hobetzea eta euskara dakitenen kopurua areagotzea.

2.Euskal Herriko erakunde publiko eta pribatuen erabilera publiko guztietan Euskal Herriaren berenezko hizkuntza ohituraz erabilia izan dadin lortzea eta jarduera osoa erdaren menpeko baldintzatan izan gabe gara dadin lortzea.

3.Herritar bakoitzaren hizkuntz eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzea, era guztietako jarduera publiko, lanbidezko, kulturazko, gizartezko edo aisialdikoei dagokienean, jakinda botere publikoei hauen gauzapena babestea dagokiela, euskal hizkuntz komunitateak duen lurraldeko berenezko hizkuntzaren eskubide kolektiboa ukatu gabe.

3.2. HELBURUEN MAILEN EGITURA



Helburu orokorra:

Plangintza Orokorraren azken helburua da, plangintzaldi guztietarako erreferente modura funtzionatuko duena. Proposamen hau eztabaidatuko duten jardunaldiek erabakiko dute.

2) Hemen azaltzen den gizartearen sektorializazio proposamena eranskinean ageri da luzeago. Berez, 7. eta 8. atalak ez dira gizarteko sektoreak, baina plangintzaren diseinu eta gauzatzean dauden egiteko garrantzitsuak biltzen dituzte eta beren segimenerako batzordeak ere beharko dira, sei gizarte sektoreetako batzordeen dinamika antzekoaz.

«Plangintzak gizarte mailako makroerabaki kolektibo bat bideratzea suposatzen du, normalizazio prozesuak suposatzen duen transformazioa euskal herritarren gehiengoak asumitu eta protagonizatu behar baitu»

Helburu sektorialak:

Helburu orokorretik ondorioztatzen dira, baina gizarte sektore bakoitzera egokituz. Hortaz, hauek ere azken helburuak dira, plangintzaldi guztietarako erreferente modura funtzionatuko dutenak. Helburu sektorial hauek jardunaldietan sortuko den Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak finkatzea proposatzen dugu, betiere jardunaldietan onartzen den helburu orokorraren baitan.

Areako helburuak:


Gizarte sektore bakoitza azpisektore edo areatan sailkatzea komeni da, hobeto planifikatzearren. Area bakoitzak helburu jakin bat izango du, baina oraingoa plangintzaldi bakoitzerako helburua izango da eta sektore bakoitzak finkatuko ditu.

Helburu espezifikoak:

Helburu zehatzak dira, eta bakoitza lortzeko neurri bat edo gehiago jarri beharko da indarrean. Helburu espezifikoak betez joatean betetzen dira, era berean, areako helburuak. Helburu espezifikoak ere sektore bakoitzak finkatuko ditu eta plangintzaldi bakoitzerako edo epe laburrarekin betetzekoak izango dira.

Helburu espezifiko hauek, berez, «helburuak» deitu izan ohi ditugunak dira. Errealitate hurbil, baina errealitate hori eraldatzeko direnak. Anbizioak, baina lorgarriak eta neurgarriak.

3.3. HELBURU SEKTORIALAK²



Helburu orokorra eta helburu sektorialak koordinatuta egon behar dute:

- Denboran zehar: epe motzeko helburuek epe luzeko helburuak lortzen lagundu eta erraztu egiten dute.
- Horizontalki: helburu guztiek beren arteko harremana dute area eta sektore ezberdinen mailan.
- Bertikalki: helburuak mailakatuta daude piramide antzera. Erpinean helburu orokorra dago.

Helburu sektorialak, areakoak eta espezifikak makrohelburu honen euskarri dira.

3) Ikus 2. oinoharra.

Segidan azaltzen diren helburu sektorialak ez dira jardunaldietan eztabaidatzekoak; **adibide modura soilik ageri dira**, nolakoak finkatu behar liratekeen erakustearren. Jardunaldietan helburu orokorra onartu ondoren ekingo dio horren baitan helburu sektorialak finkatzeari Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak.

1. Familiako harremanak

Euskararen transmisio familiarra belaunaldi berriei bermatzea eta euskararen erabilpena areagotzea familiako harremanetan.

2. Hezkuntza, ikerketa eta gazteria

2.A. Hizkuntzaren erabilpena sendotzea hezkuntza sisteman, bai irakas-kuntzarako ohiko hizkuntza bezala, bai gainerako jardunetarako ere. Hezkuntza sistemak hizkuntzen ezagupen praktikoa ziurtatzeaz gain, komunikazio eraginkorrezko metodologiak erabiliz, era berean, euskararen erabilpen publikoaren aldeko jarrera sustatuko du Euskal Herriaren berenezko hizkuntza den aldetik.

2.B. Gazteriaren kultur esparruan euskararen erabilpena zabaltzea eta orokortzea, euskara jadanik gazteek zabalkiro ezagutzen duten hizkuntza denez gero: euskararen balorazioa kontutan hartzea gazteria prestatu eta laneratzeko egitasmoetan, gazteriarentzako kultur produktuen euskarazko eskaintza normalaren sustapena, kantitatez eta kalitatez, batez ere aisialdiko jardueren antolaketan, e.a.

3. Administrazio publikoa

3.A. Euskararen erabilpena areagotzea Euskal Herriko administrazio publikoetan: euskara lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza izatea administrazioan, barne harremanetan eta administrazio artean euskara ohiko hizkuntza izatea, hiritarrekiko harremanetan euskara ohiko hizkuntza izatea eta hiritar bakoitzaren hizkuntz aukera errespetatzea harreman pertsonalizatuetan.

3.B. Neurriak hartzea, estatuetako administrazio periferikoei eta justizia administrazioei hiritarren hizkuntz aukera eta beren eskubidea informatuak izan eta erantzunak jasotzeko hautatutako hizkuntza errespetatzea.

4. Hedabideak eta kulturgintza

4.A. Euskarazko eskaintza informatibo osoa, bariatua eta lehiakorra koantitatiboki bermatzea (prentsa, irrati, TB).

4.B. Euskararen presentzia orekatua bermatzea, koantitatiboki eta koalitativoki, kultur area ezberdinetan (zinema, antzerki, argitalpen, fonografia, bideografia, e.a.), halaber publizitate eta informatikan.

5. Lan mundua

5.A. Jendearen harrera eta bezero edo erabiltzaileen komunikazioetan euskara ohiko erabilpen hizkuntza bihur dadin bermatzea, kontsumitzaileen eskubideetan oinarriturik.

5.B. Era guztietako langile eta profesionalek beren jardunak euskaraz egin ahal izan ditzaten lortzea.

**«Plangintza Orokorra
hizkuntz
normalkuntzaren
aldeko estrategiak
kontzertatzeko tresna
bat da, hitzarmentze
orokorrerako tresna,
eztabaidarako
partaidetzazko markoa.
Bertan, denen artean
onetsitako helburuak
finkatuko dira eta eurok
lortzeko aurrerabideak
zehaztu eta adostuko
dira»**

6. Osasun eta gizarte zerbitzuak

Euskararen erabilpen normala bermatzea era guztietako osasun eta gizarte erakundeetan, elkarte eta entitate hiritarretan, kulturazkoetan, ludikoetan eta kiroletakoetan; eta bideak erraztea euskal hizkuntza, kultura eta gizartearekiko etorkin berriak osoki integra ahal izan daitezen.

7. Harreman instituzionalak eta sozialak³

7.A. Hizkuntza normalkuntzari dagokionean, hiru administrazio, diputazio eta udaletako sail ezberdinen lurralde eskuhartzea gizarte sektoreei begira eta Euskararen Unibertsoaren plangintzarako egitura eta sektoreetako hizkuntz zerbitzuak garatzen dutenaren artean koordinazio egokia bermatzea.

7.B. Lankidetzeta hitzarmenak eta harremanak mantentzea eta sakontzea erakunde ofizial eta ez-ofizialen artean, hizkuntz normalkuntzari dagokionean hiru administrazioek koordinatuki jardun dezaten euskararen lurralde denetan eta hizkuntzaniztasun igualitarioaren errekonozimendua lor dezaten bi estatuen erakundeetan, Europar Batasunakoetan eta nazioartekoren zenbaitetan.

8. Euskara batuaren zabalpena eta azterketa soziolinguistikoa³

8.A. Euskararen batasuna eta espezializazio funtzionalaren prozesua bultzatzea, horretan diharduten erakundeekin koordinaturik, hizkuntz eredu eta hizkuntz irizpideen disponibilitaterik handiena bermatzeko, euskararen erabilpen publiko eta pribatua normala izan dadin lortzera bideratutako jardunen euskarri modura.

8.B. Ikerketa soziolinguistikoa sustatzea eta koordinatzea gainerako erakunde eta elkarteek egiten dutenarekin, eta emaitzak zabaltzea, euskararen erabilpen normala lortzeko eta hizkuntz eskubide indibidual eta kolektiboen errespetua sendotzera bideratutako hizkuntza plangintzaren jardunetan kontutan hartu ahal izan daitezen.

4. PROZESUAREN FASEAK

4.1. HASIERAKO AKORDIOA ETA ZABALPENA

Euskararen Unibertsoaren jardunaldietan hartuko da, proposamen hau bertan onartzen bada, Plangintza Orokorra bultzatzeko erabakia. Ondoren hiru egiteko nagusi izango da:

4.1.1. Jardunaldien erabakia gizarteratzea:

Oso garrantzitsua da hasiera hasieratik erabakiari duen garrantzia ematea eta gizarteko sektore guztietara helaraztea. Plangintzaren prozesuak parte hartzailea eta inplikatzaila izan behar badu, hasieratik zabaldu behar da gizartean honen berri. Egiteko honek komunikazio plan zehatz propio bat beharko du.

4.1.2. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortzea:

Eragin Sozialaren lan taldearen proposamena onartzen bada, jardunaldie-

tan euskararen Kontseilu hau sortzea erabakiko da. Gure proposamena Kontseilu horren egiteko nagusia ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorren prozesua zuzentzea izatea da. Koordinaziorako eta zuzendaritza teknikorako Kontseilu horrek Plangintza Batzorde bat eratu beharko luke.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari dagokio, jardunaldietan onartzen den Plangintza Orokorren helburu nagusiaren baitan sail bakoitzerako helburuak finkatzea, plangintza sektorialki diseinatuko denez sektore bakoitzeko batzordeek zeri erantzun behar dioten jakin dezaten. Garrantzitsua da Kontseilua izatea helburu sektorialak markatuko dituen, eta sail bakoitzerako plana diseinatzeko eratzen den batzordea hasi behar ez izatea zein helburu izan behar duen eztabaidatzen.

Egiteko hau guztia bideratzeko, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak zortzi batzorde dinamizatzaile jarri beharko ditu abian, sei batzorde sektorial eta bi batzorde berezi (7. eta 8. helburu sektorialeiei erantzuteko).

4.1.3. Plangintza diseinatzeko dinamika sektorialak abian jartzea:

3.3. puntuan aipatu den gizarte sail bakoitzean agente sozial erabakigileei bere alorreko plana diseinatzeko aukera eman behar zaie. Oinarritzko planteamendua honako hau da: *neurri normalizatzaileak aplikatuko dituztenek berauen diseinoan parte hartzen ez badute, nekez lortuko da sektore horiek guztiek planaren gauzatzean inplikatzeko; plangintzaren eraginkortasunerako aurrealdintza da plangintzaren diseinua partehartze zabalekoa izatea.*

Dinamika sektorial horiek operatibizatzeko Batzorde Txostengile sektorialak osatu beharko dira; gizarte sail bakoitzeko batzorde bat edo, seguraski, azpisail bakoitzeko Batzorde Txostengile bat, sektore bakoitzean beharrezkoen ikusten den moduan. Batzorde Txostengile hauek urtebeteko epea izango dute beren txostenak osatzeko, behin eratzten direnez geroztik.

Batzorde Txostengile hauek dira Plangintza Orokorra diseinatzeko benetako gune dinamizatzaileak, eta horregatik funtsezkoa da osaketa ondo zaintzea: batzorde bakoitzean egon behar luketen guztiek parte har dezaten lortu behar da, bai euskalgintzako sail bakoitzeko agenteek, bai euskalgintzakoak izan gabe -eta batzuetan bereziki euskaltzaleak izan gabe- plangintzaren diseinuan laguntzeko prest dauden gizarte sail bakoitzeko erabakigileek. Laburtuz, gizarte sektore bakoitzeko ordezkari koalifikatuez eta euskalgintzako teknikariez osatuko da sektoreko Batzorde Txostengilea.

Batzorde Txostengile hauek Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Plangintza Batzordeak koordinatuko ditu. Plangintza Batzorde horrek teknikari bat edo gehiago izan beharko du Batzorde Txostengile bakoitzean egiten den lanaren idazkari, eta batzordearen dinamizatzaile eta koordinatzaile funtzioetan. Batzorde Txostengile guztien lanen eta proposamenen arteko koherentzia zainduz joatea ere badagokio Plangintza


«Gizarte ekimenak bere Plangintza Orokorra egin behar du, administrazioak berea; eta osagarritasun eta subsidiarotasunezko harremanak bideratuz eta menpekotasunik gabe biak elkarren artean kontzertatu beharrekoak dira»

«Gizarte sektore bakoitzeko ordezkari koalifikatuek eta euskalgintzako teknikariek osatuko da sektoreko Batzorde Txostengilea»

Batzordeari. Aldiro, Plangintza Batzorde honek Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari batzorde txostengileen lanaren berri eman beharko dio, hauen dinamika gainbegiratu ahal izan dezan.

Batzorde Txostengileen egitekoa sektoreko txostena lantzea dela esan dugu, plangintza globala osatzeko. Beren lana funtzio hauek azaltzen dute:

- Sektore bakoitzeko areak (azpisektoreak) zehaztea.
- Area bakoitzaren helburuak proposatzea, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak finkatzen duen helburu sektorialaren baitan.
- Jarraibide estrategikoak.
- Area bakoitzaren helburu espezifikoak.
- Hasierako neurriak.
- Emaitzen aurrikuspena plangintzaldi bakoitzerako.



4.2. PLAN OROKORRA DISEINATZEKO GIDOIA: PLANA PRESTATZEKO FASEAK

4.2.1. Ingurunearen analisisa:

- Plangintza Batzordeak oinarritzko txosten bat prestatuko du Batzorde Txostengile bakoitzarentzat:
 - Hizkuntzaren egoera soziala sektorean.
 - Sektoreari dagokion legeri buruzko diktamena.
 - Hizkuntz Normalkuntzako jardunak sektorean.
- Batzorde Txostengileak joerak identifikatzera iritsi behar du:
 - Formulario gida bat eskainiko dio Plangintza Batzordeak.
 - Sektore bakoitzeko diseinuan parte hartzen dutenek zerrenda batera-

tu batean integratuko dituzte joerak.

- Joeren baloraketa:
 - Zerrenda bateratuari buruzko eztabaida.
 - Joera bakoitzaren puntuaketa indibiduala (-3 eta +3 artean).
 - Puntuaketen azkeneko batezbestekoa.
- Aukera eta mehatxuen zerrenda:
Aukera (+) eta mehatxu (-) bereizgarrienen hautespena egin (>2,25 eta <-2,25).

4.2.2. Helburu eta jarraibide sistema. Prozedura:

- Aukerak jarraibide bezala aurkeztuko dira:
Jarraipideak jarduneko neurri zehatzak prestatzeko errendimendurik goreneko ildoak dira dagokien gizarte esparruan.
- Mehatxuak gainditzea helburu bihurtuko da:
Mehatxuen joera negatiboa kontrarrestatu eta neurri zehatzak orientatzeko.
- Helburu eta jarraibideak zerrenda mailakatu batetan integratzeak areako helburuak finkatzea ahalbidetzen du lehendabizi.
- Areako helburu hauek biltzeak bere esparruan helburu orokorraren perspektibatik helburu sektorialak finkatzea ahalbidetzen du.
- Sektore bakoitzean helburu eta jarraibide sistema berrikusi eta onetsiko da.

4.2.3. Neurrien proposamena. Prozedura:

a) Planaren helburu bakoitza lortzeko:

- Sektore bakoitzean dihardutenek neurrien zerrenda proposatuko dute eta ondoren neurri guztien arteko zerrenda bateratua prestatuko da.
- Baloraketa espezifiko egingo da neurri egokienak hautatzeko. Horretarako lau irizpide hauek proposatzen dira:
 - sinpletasuna
 - eraginkortasuna
 - ekonomikotasuna
 - onargarritasunaKide bakoitzak neurriak 0 eta 3 artean baloratuko ditu lau irizpideetako bakoitzaren arabera.

b) Behin behineko proposamena Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluan aurkeztea eta onestea:

- Helburu eta jarraibide sistema.
- Neurri ponderatuen zerrenda.

c) Berregokitzapen politiko eta teknikoak: planaren behin-betiko bertsioa:

- Neurrien hautespena:
 - Eraginkortasun gutxikoak elkartzea: baztergarriak.
 - Gainerakoak bateratu, berrelkartu eta berregokitzea: onargarriak:
 - a) kudeaketa politikoren bat eskatzen dutenak

«Plangintzak gizarte mailako makroerabaki kolektibo bat bideratzea suposatzen du, normalkuntza prozesuak suposatzen duen transformazioa euskal herritarren gehiengoak asumitu eta protagonizatu behar baitu»

«Plangintzari buruzko Kongresuan onartutako plana unitate soziolinguistiko bakoitzean aplikatzeko herriz herri eta sailez sail egokitu beharko da. Egokipen hau plana unitate bakoitzean aplikatuko dutenek egin beharko dute»

- b) lanketa teknika bakarrik eskatzen dutenak
- Proposamen berriak inkorporatzea.
- Helburu eta neurri bakoitzaren arduradunak izendatzea, egitura bakoitzaren eskumen esparruaren arabera.
- Negoziazio politikoa eta negoziazio soziala:
 - Indar politiko guztiekin harremana.
 - Elkarrekin sozialekin harremana.

4.2.4. Programazioa:

- Emaizten eta ebaluaziorako adierazleen aurrikuspina egitea.
- Baliabideen aurrikuspina egitea.

4.2.5. Euskararen Unibertsoaren eztabaida eta onespina Plangintza Orokorrari buruzko Kongresuan:

1998. urtearen amaierarako egin beharko litzateke Plangintza Orokorrari buruzko Kongresua, proposamen behin-betikoa eztabaidatzeko eta onespina emateko. Kongresutik irtetzen den planak area bakoitzeko helburu espezifiko bakoitzerako markatuko du:

- Organismo arduradunaren izendapena
- Hasierako neurriaren deskribapena
- Organismo exekutatuzaileen izendapena
- Emaizten aurrikuspina plangintzaldi bakoitzerako

4.3. PLANGINTZA OROKORRAREN APLIKAZIOA

Plangintzari buruzko Kongresuan onartutako plana unitate soziolinguistiko bakoitzean aplikatzeko herriz herri eta sailez sail egokitu beharko da. Egokipen hau plana unitate bakoitzean aplikatuko dutenek egin beharko dute, hau da, Plangintza Orokorraren dinamikan inplikatze prest dauden herritar bolondresen sareek.

Ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorraren aplikazioaren zuzendaritza nagusia ere Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eraman beharko du, diseinuaren fasean bezala. Zuzendaritza teknika eta koordinazioa kontseiluaren Plangintza Batzordeak eraman beharko du. Segimendu sektorialerako, planaren diseinua dinamizatu eta koordinatu duten Batzorde Txostengileak beraiek izan litezke, edo hauetako batzuekin eta berri batzuekin sortutako Batzorde Sektorial berriak. Nolanahi ere, planaren diseinuak irauten duen bitartean neurrien aplikazioa nola egingo den eta plana gauzatzeko bitartekoak zein izango diren askoz ere gehiago zehaztu beharko da.

Herriz herri eta sailez sail plana unitate soziolinguistiko ezberdinetan egokitu eta aplikatuko duten bolondresen funtsean Plangintza Batzordearen eta Batzorde Sektorialen laguntza izango dute, besteak beste txosten honen 2. eranskinean ageri diren «Organismoetan hizkuntza normalizatzeko bideratzeko urratsak eta eskema» bezalako tresna metodologikoekin. Nolanahi ere, ehundaka lagun horientzat oinarritzeko formazio programak

lantzea behar beharrezkotzat jotzen da.

Plangintza Orokorren buruzko Kongresuan administrazioei proposatzeko onartuko diren neurri instituzionalei dagokienez, gauzatze fase honetan ekin beharko zaio proposamen horiek instituzioetako arduradunekin kontzertatzeari eta neurri eraginkorrak har ditzaten eragin soziala garrantzeari.

4.4. PLANGINTZA OROKORRAREN EBALUAKETA ETA EGUNERAKETA:

Planak dituen hiru mailetan egin behar da ebaluaketa eta eguneraketa:

- Plan Orokorra (bost urteko zenbait plangintzalditakoa).
- Programa markoa (bost urteko plangintzaldi bat).
- Urteko programak.

4.4.1. Plan Orokorren emaitza erabakigarrien eskema:

1. Eraketa eta teknikariak, kualitatiboki eta kuantitatiboki.
2. Herritarrentzako informazio eta zerbitzu iraunkorrak.
3. Euskal hiztunen kopurua eta berauen hizkuntz gaitasuna.
4. Garapen funtzionala ahalbidetuko duen hizkuntz ereduen disponibiltatea.
5. Botere publikoen eta gizarte zibilaren arteko elkarlana eta Hizkuntz Normalkuntzako jardunen koordinazioa Euskal Herriko esparru osoan.
6. Hizkuntzen errekonozimendu igualitarioa.
7. Euskarazko zerbitzu eta produktuen erabilera edo kontsumoa.
8. Euskararen gizarte erabileraren zabalpena eta funtzio osotasuna.

4.4.2. Programa markoaren ebaluaketa:

1999 - 2003 programa markoa amaitzean Plan Orokorren eguneraketa egin behar da sakontasunean, hurrengo epeari begira plangintza estrategikoaren ziklo berria zabaltzen baita. Ingurunearen analisia berritu beharko da eta planaren aspektu denak berregokitu.

**«Nolanahi ere,
ehundaka lagun
horientzat oinarritzko
formazio programak
lantzea behar
beharrezkotzat jotzen
da»**

4.4.3. Urteko programaren ebaluaketa eta berrikuspena:

Hizkuntz Normalkuntzarako programen jarraipen mailak

	Maila operatiboa	Maila taktikoa	Maila estrategikoa
Agenteak	Bolondresen sareak	-Plangintza Batzordea -Batzorde sektorialak	Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
Xedea	Kanpokoak • Emaizak eta helburu operatiboen arteko egokitzapena (adierazleak) • Bideratzen ari diren jardueren berregokitzapena Barnekoa • Helburu operatiboen formulazioa • Adierazleen hautespena	Kanpokoak • Jardunen egokitasuna Barnekoa • Integragarritasun globala	Kanpokoak • Beharrian sozialen eta helburu eta neurrien arteko egokitzapena Barnekoa • Programa marko/ plan orokorraren aldaketak
Maiztasuna	Eguneroko-seihilerokoa	Seihilerokoa-urtekoa	Urteko-plangintzaldikoa
Ebaluaketa-prozedurak	• Seihileroko baloraketak • Neurri bakoitzaren memoria	Programen memoria	Plan orokorraren memoria koalitatiboa

Emaitzen ebaluaketarako neurri bakoitzaren seihileroko memoria eta emaitzen urteko memoria egin beharra dago. Neurri bat onargarritzat joko da baldin eta emaitzek programatutako helburuen % 50 edo gehiago suposatzen badute.

Planaren berrikuspena eta eguneraketa

Exekuzio prozesu osoaren azterketa egin ondoren kontuan hartu beharreko aldeak:

1. Kontzertazio soziolinguistikorako marko gisa zertan den aztertzea.
2. Helburu eta neurrien egokitzapena.
3. Programakuntza, ebaluaketa eta sustapen sistema hobetzea.
4. Proiektu berrien prestakuntza.

LEHEN ERANSKINA

GIZARTEAREN SEKTORIALIZAZIOA


1. Familiako harremanak.
2. Hezkuntza, ikerketa eta gazteria:
 - Irakaskuntza ez unibertsitaria.
 - Unibertsitatea.
 - Gazteria.
 - Formazioa.
 - Helduen euskalduntze-alfabetatzea.
3. Administrazio publikoa:
 - Udal administrazioa.
 - Administrazio probintziala.
 - Administrazio autonomikoa (Hegoaldean), departamental eta erregioarena (Iparraldean).
 - Justizia administrazioa.
 - Estatuaren administrazio zentrala eta periferikoa.
 - Zuzenbide munduko elkargo profesionalak.
 - Herritarren hizkuntz eskubideak.
4. Hedabideak eta kulturgintza:
 - Prentsa, irratia, telebista.
 - Publizitatea.
 - Informatika.
 - Zinea, antzerkia.
 - Argitalpenak, fonografia, bideografia.
5. Lan mundua:
 - Erakunde enpresarialak, sindikalak, e.a.
 - Enpresa pribatuak.
 - Enpresa publikoak.
6. Osasun eta gizarte erakundeak:
 - Kirol elkarteak.
 - Beste elkarte edo kolektibo sozialak.
 - Elizak eta konfesio erlijiosoak.
 - Jarduera ludikoak.
 - Osasun mundua eta asistentziala.
7. Harreman instituzionalak eta sozialak⁴:
 - Koordinazio instituzionala eta hizkuntz politika.
 - Harremanak eta koordinazioa gizarte mugimendua eta administrazio publikoaren artean.
8. Euskara batuaren zabalpena eta azterketa soziolinguistikoa⁴:
 - Batasun prozesuaren koordinazioa.
 - Hizkuntz irizpideak lantzea eta zabaltzea.
 - Erabilera berezituak eta terminologia.
 - Azterketa soziolinguistikoa.
 - Euskalkiak.
 - Leku izendegia.

4) Berez, 7. eta 8. atalak ez dira gizarteko sektoreak, baina plangintza-ren diseinu eta gauzatzean dauden egiteko garrantzitsuak biltzen dituzte eta beren segimenerako batzordeak ere beharko dira, sei gizarte sektoreetako batzordeen dinamika antzekoaz.

5) "Organismo" hitzarekin ezein enpresa, elkarte, udal, ikastetxe, denda, taberna, anbulatorio, ... edo oinarrizko unitate adierazi nahi da.

BIGARREN ERANSKINA

ORGANISMOETAN⁵ HIZKUNTZ NORMALKUNTZA BIDERATZEKO URRATSAK



ORGANISMOETAN HIZKUNTZ NORMALKUNTZA BIDERATZEKO ESKEMA

FAKTOREAK	ADIERAZLEAK
1. IRUDIA ETA ERROTULAZIOA: erakundearen identifikazio soziala, errotulazio, barne eta kanpoko adierazleak, erakundearen zerbitzu eta produktuen propaganda eta publizitatea.	1.1. Izena edo izendapen soziala dokumentu inprimatuan 1.2. Errotulu nagusia 1.3. Lan ordutegiaren errotulua edo baliokidea 1.4. Lehendabizi aurkitzen den barne errotulua 1.5. Publizitate mezua: telebista, prentsa, irratia, txartela, foiletoa edo hiruorrikoa 1.6. Plastikozko boltsa, etiketa, prospektu, gutunazala
2. PERTSONALAREN HIZKUNTZ EGOKITASUNA: Pertsonalaren edo erakundeko langileen hizkuntz ezagupenen egokitzapena, betetzen duten lanpostuaren arabera.	2.1. A hizkuntz eskakizuna: ulermen mailako hizkuntz ezagupenak 2.2. B hizkuntz eskakizuna: oinarrizko hizkuntz ezagupenak 2.3. C hizkuntz eskakizuna: hizkuntz ezagupen ertainak
3. HIZKUNTZA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK: erakundearen jarduera ezberdinetan hizkuntza erabiltzeko irizpideak hartzea.	3.1. Azken bi pertsonen hautespenean euskarari emandako balorazioa 3.2. Euskarazko klaseetara doan pertsonalaren portzentaia, hizkuntz egokitasunik ez duen pertsonalari buruzkoa 3.3. Pertsonalaren euskarazko prestakuntza tekniko 3.4. Jendeari euskaraz harrera egiteko irizpide adieraziak izatea 3.5. Komunikazio idatzientzat euskara erabiltzeko irizpide adieraziak izatea 3.6. Zerbitzuaren erabilpen sistematikoa zuzenketa edota itzulpena egiteko 3.7. Pertsonalaren hizkuntz autonomia bultzatzea
4. KANPO ERABILPENERAKO DOKUMENTAZIOA: kanpoan erabiltzeko diren dokumentu inprimatuak.	4.1. Gutun-papera 4.2. Zigilu identifikatzaileak 4.3. Eskuliburua, erabiltzeko jarraibideak (jatetxearen menua, taxiaren tarifak, jai egitarauak, ...) 4.4. Faktura, ordainagiria
5. KANPO KOMUNIKAZIOA: erakundetik kanpo(ra) zabaltzen diren ahozko eta idatzizko testuak, inprimatu gabeak.	5.1. Telefono harreran hasierako hizkuntza 5.2. Ahozko harrera zuzenaren hasierako hizkuntza 5.3. Ohiko jardueraren hizkuntza 5.4. Komunikazio idatziak instituzio publiko eta pribatuekin 5.5. Komunikazio idatziak erakundearen bezero, erabiltzaile edo elkar-teetakoekin 5.6. Komunikazio idatziak hornitzaileekin 5.7. Argitalpenak edo beste material argitaratuak 5.8. Festa eta jaialdietan kasuz kasu egokitu: megafonia, aurkezpenak, musika eta abar